

## **2007-12-20ko EZOHIZKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta zazpigarren urteko abenduaren hogeian, arratsaldeko 20:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohizko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea –Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: M. Jesus Otaño Zumeta andrea, Eugenio Loidi Garmendia jauna, Jose Luis Olano Zubeldia jauna eta Agustin Zubeldia Iraola jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak eta Aitor Lasa Olalde jaunak.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

### **LEHENBIZIKO GAIA AURREKO AKTAK ONARTZEA (07/11/20).**

2007ko azaroaren 20ko presazko ezohiko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hau onartzea.

### **BIGARREN GAIA ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

-2007-10-23ko 110/07 Dekretua: Enrike Aizpurua jaunari, beharrezkoak diren lan guztien beharhalako exekuzioa agintzea, frontoiko lanen amaiera eta bidezko egoera bermatzeko.

-2007-10-25eko 111/07 Dekretua: Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarteari baimena ematea, esleitutako lurrazal eskubidea maileguaren berme gisa hipotekatzeko.

-2007-10-31ko 112/07 Dekretua: Naturgas Energiak egiten duen Udal jabari publikoaren erabilpen pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatiko likidazioa.

-2007-11-06ko 113/07 Dekretua: Naturgas Energiak egiten duen Udal jabari publikoaren erabilpen pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatiko likidazioa.

-2007-11-07ko 114/07 Dekretua: José Ramón Epelde Irizar jaunari baimena ematea, hainbat baldintzekin, bizi den etxeko balkoien ertzak konpontzeko.

-2007-11-07ko 115/07 Dekretua: Paska Vazquez Medina jaunari baimena ematea, hainbat baldintzekin, termiten kontrako tratamendua egiteko.

-2007-11-09ko 116/07 Dekretua: Mari Jose Aizpuru udaleko langileari, 4. urratseko ikastaroko matrikularen gastuak ordaintzea.

-2007-11-07ko 117/07 Dekretua: irailari dagozkion fakturak onartzea, 54.948,44.-€ko zenbatekoa osatzen dutelarik eta, aldi berean, J. Satrustegi (megafoni ekipoa) 1.735,55.-€, Tolosaldea Garatzen (gestio plana etab) 3.131.-€, José Miguel Garmendia (osasun zentro zaharrear eta herrian zehar egindako obrak) guzt. 8.985,31.-€ , Hermex (haurreskolako materiala) 1.504,11.-€ eta Construcciones Echaide S.A. (Guadalupeko obrak) 5.024,32.-€ kopuruetako fakturak.

-2007-11-14ko 118/07 Dekretua: Labein enpresa kontratatzea frontoiko hormaren estaldura patologien konpontze lanen zuzendaritzaren aholkulari tekniko lanak egiteko.

-2007-11-23ko 121/07 Dekretua: Jose Martin Arnedo jaunari euskara eskolen matrikularen bigarren zatia ordaintzea, urtean zehar oso asistentzia ona izan duelako.

-2007-11-28ko 123/07 Dekretua: Irurako arau subsidiarioetako 5. aktuazio unitateko borondatezko birpartzelazioaren onarpena berrestea.

-2007-11-30eko 124/07 Dekretua: Irurako gazte eta kulturuneko egokitze lanak aurrera eramatea eta beharrezkoak diren izapideen hasiera agintzea.

-2007-12-05eko 125/07 Dekretua: Jose Luis Izaguirre Erasunek, Oria Bugati S.L.-ren izenean, egindako eraikuntza lizentziaren luzapen eskaera ez onartzea.

-2007-12-05eko 126/07 Dekretua: UHEMAREN ohiko funtzionamendurako Irurako Udalarari egitea dagokion kuotaren ordainketa onartzea.

-2007-12-05eko 127/07 Dekretua: Construcciones Joxe Miguel Garmendiak aurkeztutako proposamena onartu eta Irurako trinketeko komunak berriztatzeke kontratua esleitzea.

-2007-12-13ko 128/07 Dekretua: Naturgas Energiak egiten duen Udal jabari publikoaren erabilpen pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatiko likidazioa.

-2007-12-13ko 129/07 Dekretua: Naturgas Energiak egiten duen Udal jabari publikoaren erabilpen pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatiko likidazioa.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

## **HIRUGARREN GAIA** **ONARTZEA, BADAGOKIO, IRURAKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN** **NAGUSIA.**

Euskara biziberritzeko plan nagusia (EBPN aurrerantzean), Eusko Jaurlaritzak bultzatutako plana da, bere helburu nagusia euskara gizarteko esparru guztietara zabaltzea delarik. EBPNk hiru lan esparru estrategiko ditu: euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ez etetea, euskararen erabilera gizarteko esparru guztietara zabaltzea eta euskara bera, komunikazio tresna den aldetik, lantzea eta aberastea.

EBPN-n sartzeko, baldintza hauek bete behar dira: udalak EBPN onartzea eta, horren ondorioz, neurri batzuk hartzeko konpromisoa hartzea; neurriei buruz eztabaidatzeko aholku batzordea osatzea; eta hirugarrenez, Eusko Jaurlaritzak eskura jartzen duen aplikazio informatikoa betetzea: batetik, 2008-09ko plan estrategikoa eta, bestetik, urteroko kudeaketa plana.

EBPN-n sartzea Irurarentzat dituen alde onak ondokoak dira:

1. Euskararen alde hartzen diren neurriak, egiten diren ekitaldiak... dokumentu bakar batean bildurik edukitzea, kronograma eta aurrekontu batekin.
2. Diru laguntzak eskuratzeko aukera. 2008an, 4.416 eurokoa izango da (Irurako udalak UEMari ordaintzen dion kuotaren %80). 2009an diru laguntza, berriz, egindako ekintzen arabera izango da.
3. Irurako Udalak euskararen alde egiten duenari aitortzen dio Eusko Jaurlaritzak.

Udal teknikariaren txostena ikusirik eta Irurako Udala UEMaren partaidea dela kontuan hartuz, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, ondokoa erabakitzen dute:

Lehen.- IRURAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA onartzea eta planaren segimendua egiteko aholku batzordea eratzea onartzea.

Bigarrena.- Eusko Jaurlaritzari erabaki honen berri ematea, dagokion efektuetarako.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

### **LAUGARREN GAIA** **ONARTZEA, BADAGOKIO, UDAL HONEN 2007KO AURREKONTUAREN** **BIGARRENGO KREDITUEN ALDAKETA ESPEDIENTEA.**

2007 urteari dagokion ekitaldia amaitzeaz dagoelarik, beharrezkoa ikusten da urtealdi honi dagokion Bigarrengo Kreditu Aldaketa Espedientea aurrera eramatea, aurrekontua eta egindako gastuak doitzeko. Partida ezberdinetan jasandako gastu handitzeak, beste partida batzuetan aurrikusita zegoen gastua ez exekutatzearan sortzen den doiketa egitea proposatzen da, hots, transferentzia bidezko kreditu aldaketa (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua, 29. artikulua):

KAPITULUA	Aurrikusia	Errealak	Ezberd.
1.- Pertsonal gastuak	597.614.- €	614.614.- €	17.000.- €
2.- Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan.	592.680.- €	647.680.- €	55.000.- €
4.- Transferentzia arruntak	193.160.- €	198.160.- €	5.000.- €

Guztira

77.000.- €

Gastu hauen gehikuntzaren arrazoi ezberdinen zergatia zein den azaltzerakoan, kapituluaren ikuspegia kontuan hartuz aztertzea komeni da:

Lehenengo kapituluak jasandako desbiderapena, nagusiki egin diren kontratu berriztapenei zor zaiela esan daiteke. Hasiera baten dirulaguntza bidezko postu betetzea izango zela uste zena, guztia Udalaren kontura izan da azkenean (gizarte

dinamizatzailea eta kalerako langileak).

Bigarrengoak jasandakoa: Hainbat gastu ezohikoren azalpenak eragindakoa (epaiketak, ur-biltegiko punpa, jaien gastuen handitzea,...).

Laugarren kapituluko gorabeherak: batez ere udaltalde 21eko teknikariaren kontratazioak suposatu duen gastuak eragindakoa.

Gastuen atalak jasandako gorakada hori, finantzatzeko asmoz, gastu jakin batzuen murriztapena egitea proposatzen da:

KAPITULUA	Aurrikusia	Errealak	Ezberd
6.- Inbertsio errealak	238.527,02.- €	191.527,02.- €	47.000.- €
622.420 Eraikuntzak. Hezkuntza	72.126,58.- €	35.126,58.- €	37.000.- €
642.430 Arau subsidiarioen berrikuspena	10.440.- €	440.- €	10.000.- €
7.- Kapital transferentziak	69.500.- €	39.500.- €	30.000.- €
781-450 Kapital transf. kultur erakundeei	42.500.- €	12.500.- €	30.000.- €
Guztira			77.000.- €

Ikusita idazkari – kontuhartzailearen txostena, Udaltzako aho batez erabaki du Lehena.- Udal honen 2007ko aurrekontuaren bigarrengo kreditu aldaketa espedienteari behin behineko onarpena ematea gastuen murriztapen modalitatean.

Bigarrena.- Indarrean dagoen legediak xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendaurrean erakusgai jarri eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatzea, espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

### BOSGARREN GAIA

#### ONARTZEA, BADAGOKIO, CONSTRUCCIÓN Y GESTIÓN DE SERVICIOS, S.A.U.-K EGINDAKO LUR SAILAREN ALDEBAKARREKO LAGAPENA.

Irurako Udaleko Osoko Bilkurak, 1999ko azaroaren 2an hartutako erabakiarekin, udal jabetzako lursail baten esleipena egin zion, "Construcción y Gestión de Servicios, S.A.U"-ri, bertan babes ofizialeko 24 etxebizitza, ganbara eta garaje eraikitzeke. Aipatutako lur eremua, egun indarrean dauden Irurako arau subsidiarioetako 31. exekuzio unitateko konpentsazio-proiektutik sortutako sailen artean, D hizkiarekin izendatua dagoen hiri-finka da.

Orain, eraikuntza lanak amaitu ondoren, "Construcción y Gestión de Servicios, S.A.U"-k aipatutako D hiri finka horren segregazioa egin du eta izaera publikoa duen eremuaren aldebakarreko eta dohainezko lagapena egin nahi dio udalari. Eremu hau, aipatutako D hizkiarekin izendatutako hiri finkatik eratortzen da, bere erabilera bide, aparkaleku eta gune berde publikoetarako izango delarik. 922,50 m<sup>2</sup> -ko azalera du, ipar, hego eta mendebaldetik F partzelarekin mugatzen du; ekialdetik, berriz, exekuzio unitatearen mugakidea den 24. gunearekin.

Aurrekoa ikusita, idazkariaren txostenak ikusirik, udalbatzak, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- “Construcción y Gestión de Servicios, S.A.U”-k egindako eremuaren aldebakarreko eta dohainezko lagapena onartzea.

Bigarrena.- Alkatea ahalordetzea aipaturiko aldebakarreko lagapena onartzeko, sinatu behar diren dokumentu eta izapide oro aurrera eramateko.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

**SEIGARREN GAIA**  
**ONARTZEA, BADAGOKIO, ESKUALDE MAILAKO JARDUERA**  
**EKONOMIKOETARAKO LURZORUEN UDALEKO SUSTAPEN PUBLIKORAKO**  
**ADMINISTRAZIO ARTEKO HITZARMENA SINATZEA.**

Tolosaldeko I. Plan Estrategikoa onartu zenetik antzeman zen eskualde mailako estrategia izateko aukera zegoela eta komeni zela. Kasu horretan, estrategia hori beste erakunde publiko batzuekin lankidetzan prestatu beharrekoa zen, jarduera ekonomikoetarako eta horien sustapen publikorako lurzorua eskuratzeko eta urbanizatzeko, helburu berarekin, udal bakoitzak bere eskuduntzei dagokienez bidera ditzakeen ekimenei kalterik eragin gabe. Eskualde mailako politika horretarako rol erabakigarria bete zuen; beharrezkoa zen luraren erabilera arrazionalizatzea Tolosaldean, garapen iraunkorrari dagokionez, ingurumeneko, paisaiako eta gizarteko balioak bermatu eta sustatu ahal izateko. Era berean, eskualdeko ikuspegia duen eta luraren behar adinako eskaintzak dituen politikak ahalbidetu beharko luke enpresak egoitza inguruneetatik irtetea eta industrialde berrietan berriz instalatzea; hain zuzen ere, horren inguruko esperientziak badaude.

Politika hori dagoeneko, Apatxa Errekako industrialdean hezurramitu da eta mantendu egin behar da.

Etorkizuneko sustapenetan eta denboran indartzeko helburuarekin batera, hitzarmen honen beste xedeetariko bat urbanismoko eraikigarritasunerako lagapenekin eta lurzoruen sustapen publikoek osatzen dituzten zergen diru sarrerekin lotura duten alderdiak adostea da udal sinatzaileek etorkizunean beren artean modu elkartuan, zein udalaz gaineko beste entitate batzuekin batera bultzatutako jarduera ekonomikoetarako; hori guztia ordenamendu juridikoan aurrez ikusitako baldintzen arabera egingo da.

Hitzarmen honen helburua iraupen luzeko lankidetzako tresna osatzea eta, aldi berean, Apatxa-Erreka-ko Plan Partziala bultzatu zen unetik bere gain hartutako hitzezko konpromisoak hezurramitzea da.

Administrazio arteko hitzarmen honen helburu nagusiak, ondokoak dira:

- Eskualde mailan, lurzorua okupazio eragingarriagoa, arrazoizkoagoa eta iraunkorragoa bultzatzea eta, zehazki, urbanizazioko eta ekonomiako

jardueretarako lurzorua eskuratzea, eta lur horiek bultzatzea guztientzat komuna den ikuspuntua, jarduera industrial eta komertziala sustatzea.

- Etorkizunean atxiki daitezkeen udalen eta alderdien eskubideak eta betebeharrak zehaztea eta funtzionamendurako arau osagarriak xedatzea.

Bestalde, hitzarmen honek sortzen dituen jarduerak onartu duten udal sinatzaileetako eta etorkizunean hitzarmenarekin bat egin dezaketen beste batzuetako udal barrutietan soilik garatuko dira.

Guztiaz gain, hitzarmen honek aipatzen dituen jarduerak jarduera ekonomikoetarako, udal bakoitzak lurzoru gaietan bere eskuduntzen baitan bidera ditzakeen ekimenei kalterik egin gabeak direla ulertzen da.

Kontuan izanik, Irurako Udala, Tolosaldea Garatzen S.A. eta Apatxa-Errekako industrialdeko sustapenaren partaidea dela, eta hauetan partehartzera bultzatu zuten arrazoiek indarrean jarraitzen dutela, udalbatzak, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Eskualde mailako jarduera ekonomikoetarako lurzoruen udaleko sustapen publikorako administrazio arteko hitzarmena sinatzea onartzea eta hitzarmenera atxikitzea, berau berrestuz.

Bigarrena.- Alkatea ahalordetzea aipaturiko hitzarmena sinatzeko eta behar diren dokumentu eta izapide oro aurrera eramateko.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 21:30etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.